

EUSKARA AHOAN, ERDARA BURUAN.
Proposamena Administrazioari

1.- Zertara nator?

Buruhauste ugari ematen digun gure euskararen gaineko arazoetarik bat hartuko dut gaurkoan: *euskaraz irakatsiko duen irakaslearen euskal gaitasuna*. (Euskal Irakaskuntza, 1979-80; 1989-90. Eusko Jaurlaritza). Euskararen indar soziala berez eskasa izanik, irakaslearen gaitasuna ezinbesteko baldintza bilakatzen da umeengan euskara feroso erne dadin gura bada.

Urte urte aurreratzen dugu kopuruari dagokionean, gero eta ikasle gehiagok ikasten du euskaraz. Kantitatean itzelezko gorakada nabarmentzen dugu. Portzentaiei begiratuz gero, 1960an ikastoletako ikasleak 500 ziren; 1989an 174.000 ziren Euskal Herri guztian. Nire ardura, artikulu honetan, kantitatea badoala ikusirik, kalitatearena da. Zelango euskara irakasten da? Nik hemengo asmoa mikroikuspuntutik aztertuko dut, makrarazoak ere badiren arren, horien bideratzea inori utzirik.

Zuk eta nik, irakurle, asteoro entzun ohi dugun euskara - ikastola, eskola, institutuetatik irtendako gazte jendearena- gogorra da sarritan, jariorik gabea gehienetan, akatsez betea frankotan. Nora goaz horrela, 200 milak diharduela ikasten alkarrikatu arren? Dinot nik, baina zertan datza euskara berri antzeko honen kausa? Bat, behintzat, irakaslegoaren prestakuntzarik ezean.

Ez diezu inoiz entzun euskara eta euskaraz irakasten ari direnei, halakorik?: «Bai, nik egon naiz». «Eta esan dizu ezer»? «Ez ezer». «Dago Karmen»? Eta nik al dakit zenbat holako. Lehenik zuzentzeari ekiten nion; geroztik, euskarazko tituludun batzuk oso errez jotzen dutenez erdarara, nahiko pozik aurkitzen nahiz fortuna eskuirekiak euskara entzutea bera zilegiztatzen didanean. (Irakasle bikainak ere ez dira falta. Kontuz!). Ikasleek ikasketetarako erabiltzen dituzten orrietan, antzera. Ez dakizu euskalzale, zertzukaz topa zaitezkeen. Itzelak! Batzutan ulertu ere nekez uler daitezkeen perpausak. Gazteria, holantxe ikasiz doakigu.

Ez nadin, dena den, epaile neurrigabe izan. Neuk ere egun osoz eta ingelesez baliatu beharko banu, huts bat eta bi baino gehiago aireratuko bainuke. Neu ere, beraz, oker ibiliko nintzateke eta zuzentzailea beharko. Guztiarekin ere beti dagoke desberdintasuntxuren bat, ezen niri ez dizkit ingelesa ikasteko urte oso bi inork ordaindu, egun osokoak, beste zeregin barik.

Errealitate honen aurrean, artikularen helburua, irakasleek ahoz nahiz idatziz darabilten euskara oker hori dela eta har daitezkeen jokabidea arlo mugatu baten zehaztea da.

Zoritxarrez, gainera, ez da arazo hau irakasleen korpusekoa soilik. Euskal Idazleen Elkarteko azken eskutitzean, «...jakin erazi nahi zaitugu» dator; Egunkarian bertan E.I.k «Ea jabetzen bada». Jaieginen, «Mail handiko...., ideia berrietan». Dakusakegunez, kazetarien arazoa ere bada; ETBko filmeetakoa ere bai. Horren aurrean, goroldioa bezain alfer, mendiak baino geldoago geratu behar ote dugu?

2.- Ama hizkuntzatik amaorde izatera.

2.1.- Zelan heldu gara maila honetara?

Ikastola askotan, eskola gehienetan, erdal mundupeko giroan hasten den haurra, bere hiru urte txikiak soinean dituela jabetzen

da egitura oker bategaz. Erabiliaren erabiliaz, fosilizatu egiten zaio bigarren hizkuntza horretatik jasoa.

OHOeko Goi Ziklotik aurrera gai sakonagoak landu behar dira euskara ortopediko horregaz. Irakasleak, gaia ezagutzen badu, euskarazko hutsegiteak gorabehera, aprobatu egingo du.

Unibertsitatera heltzerakoan, D/B eredueta saiatu direnetatik, guttiengoak joko du euskarazko adarretara. Eta badakizu, fisikako irakaslea ez zaio hutsak aztertzen hasiko. Ondorioz, ezin argiago dagoke Unibertsitaterarteko ikasketak euskaraz jarraitzen dituzten neska-mutilentzat euskara ikasi eta sistematikoki hobetzea UBIIn bukatzen dela.

Urri bakan batzuk Euskal Filologia ikasiko dute. Baina Gotzon Garatek adierazi ohi duenez, han ez da irakaslerik bakoitzaren mintzarena lantzerantz dedikatzen denik. Azken batez, Euskal Filologia burutzen dutenek ere UBI gainditzerakoan zeramatzaten hankasartze beretsuekin darraite. Hara irakasle multzo baten ikasgelarainoko traiektoria.

2.2.- Nondik dator gaurko irakasle goa D/B eredueta?

Orain 12ren bat urte posible zen hizkuntz maila egokia zuten irakasleak kontratatzea; jaiotze-tasen jaitzierak kontratazio berriak egitea ia erabat galerazen du; ondorioz, irakasle euskaldunak irakas-sistematara hartzeko barruko birziklaia egin behar da. Gehienetan erdaldunen multzotik honenbeste euskaldunduz.

Ondorioa, egunero entzun dezakegun euskara gazi-geza da. Txikitandik nahiz adinean ikasi duten irakaslerik gehienentzat, euskarak bigarren hizkuntza izaten jarraitzen du.

Edozein zalantza agertzen zaienean erdara da eredu, gaztelera kontsultatzen dute eta euskarara itzuli. Erdara darabilte buruan aho-paperean euskara azaldu arren.

Puntu honetan euskaraz jantzirik egon eta euskal sena duen irakaslea nahitaezko dela iruditzen zait. Gure gaur eguneko irakaskuntzak euskara irakatsi arren euskaldun oso gutxi sortzen baitu. Gizartean bigarren hizkuntza bezala daukagun euskara, bigarren hizkuntza moduan irakasten da. Gaurkoz gehiegitan da amaorde. Hau ere ez dut sakonduko, ez dagoen Euskal Herrian ez baita errez egon litekeen euskara irakastea.

3.- Norena da errua? Non ezarri behar da galbahea?

Ez da nire asmoa, neurriak zehazteko eskatu arren, IRALE nahiz Unibertsitateari erasotzea. Une jakinean hizkuntz gaitasun jakina frogatu izanak ez du pertsona horren handik aurrerako hizkuntz garapenaz gauza zehatzik adierazten (E.I.E.J.).

Irakasle batzuk, euskal giroan integraturik, euskara maila igotzen jarraitzen dute -nire plangintza hauentzat proposatzen dut batipat-. Beste zenbait, aldiz, euskal giroarekin nabarmenki harreman gutxiago izanik eta, agian, euskara/z irakatsi beharrik ez badu, jaitsi egiten da mailaz.

Hemen bideratu gura dena, beraz, irakaslea eskolaratu osteko arazoa da. Argi ikusten da erantzunkizuna irakaskuntza sare osoari dagokiola, eskolaurretik unibertsitaterainokoari. Har dezagun adibide legez otsailaren 4eko nire ikasleen azterketa: -k ergatiboan huts egin duenari puntu bat kendu diot; galderari erantzun bete-betekoa eman badio ere. Esaldien artean ergatibo bakarra oker edukitzean itaun horretan zera jaso du. Asaldatau egin dira 2. Batxilerreko ikasleak, euskara ez zuzenean erantzun arren gaia bazekitela argumentatuz. Hor gure leizea, gure behaztopa-harri eta galpidea. Euskara txarra gorabehera, historia, literatura edo matematika badakizki aurrera doa. Noraino? Unibertsitateraino, irrati-telebistaraino, irakaskuntzaraino.

Aurkituko duzu hain estua ez dela izan behar diotsunik, hizkuntzak etengabe doazela aldatuz eta beste euskara bat sortuko

dela hortik. Xabier Kintanak erantzungo lieke: «Ondoei dakit edozein hizkuntza, berez, beti eta etengabeki eboluzioan ari den izakia dela, baina eboluzio hori bultzatzen duten eragin eta arrazoi guztiak ez dira beti ontzat hartzekoak». (Egunkaria, 1991-1-29). Ni neu beldur naiz euskarak daraman eboluzioa ez ote datorkion ia osoa faktore bakar batetik, alegia, erdararen eraginetik; ondorioz honek dakartzan interferentzia guztiekin, gure kasuan irakasleenganakoeekin.

4.- Zer jokabide proposa daiteke?

4.1.- Beste batzuk dioskutena.

«Irakaskuntzak, ahaleginik handienaz ihardun den alorra izanik ere, irakasleen birziklaia, materialen zuzkidura eta, halaber, aplikatzen ari diren hizkuntz ereduen emaitzen benetako kontrol eza eta abar ditu arazorik larrienak aurre emateko» (Jakin, 32. Iñaki Larrañaga eta).

Irakaslegoak, gaurkoz, ez dauka behin irakaskuntza sarearen barruan dabilenean laguntzarik. Eta irakaslea LAGUNTZA PERTSONALIZATUAREN eta BIRPRESTAKUNTZA-EGITARAUEN PREMIAN aurkitzen da. (Ikus, X. Mendiguren, Egin-Euskadi 1990n).

4.2.- Nire proposamena

Ofizioan dabilenak, PAT deituriko Euskararako Koordinatzaileak daudela erantzungo dizu. Bai, egon badaude. Konpondu, oster, ezer gutxi. Ezin daitezke, gainera, nik proposatzen dudanera heldu. Iñaki Perurenaren harrijasotzaile plaza ezin daiteke konkurtsora atera, ezen lehiaketa, urteetako merituengatik eskuratu arren, harritzarra nork bizkarreratu?

Nik laguntza indibidualizatua proposatzen dut, irakasle bakoitzaren aho eta idatzizkoa zuzentzeko gai izango litzatekeen IRAKASLE KALITATE KONTROLATZAILEA.

Egunotan, IRALera ibili diren irakasleak protestaka ari dira, euren ustez euskaraz irakastera itzultzeko ez daudelako gaiturik. Hauentzat ere KALITATERAKO IRAKASLEA izan daiteke konponbide. Ikastetxeetara itzultzen dira, bai, baina han aurkituko lukete euren azterketa, azalpen, oharrak gainbegiratzeko laguntzaile-teknikoa, eta bertan ahozkoa zuzenduz jarraituko litzaiekeena.

Orain urteak irakaskuntzan diharduten irakasle euskara ikasiek ere ehundaka zalantza izaten dituzte eguneroko lan zein mintzamenean. Zer erremedio hoberik zentru horretako kolektiboan literatura dagoen KALITATE ZAINZAILAren zuzenketa pertsonalizatu eta bakar laguntza baino?

Ente berririk sortzeko asmoa ez balego, gaurko araudian BIMALE planetara egoki daiteke. (PATera nekez). Plangintza hauek, eskola jakinetako irakaslego osoa euskalduntzera zuzenduta daude. KALITATEAREN JAGOLE horrek ikastetxe batetan egin ahal izango luke lan, bertako irakasleen eguneroko behar idatzi zain ahozko hutsegiteak banan-banaka zuzendurik.

Ekintza hau esperientzia gisa buru daiteke lehenik. Ikasturte amaieran eskuan izan daitezke, horrela, ikastetxe aztertu horretako lan konkretua, metodologia zein diagnosi osoa.

Edozein kasutan ere, KALITATERAKO IRAKASLE horrek interesatuen nolabaiteko onespina beharko luke, aldamenekoek zuzen gaitzaten ez baita gozoa izaten.

Honela ez da, oraindik konpondu gabe dirauen testugileen, itzultzaileen premia konpontzen. Batxilerrean euskaraz irakasten dugunok, liburua eduki daukagunean, ia beti bakarra izango da; erdaldunak, oster, zazpi edo zortzi edukiko ditu aukeran eta urtero argazki ederrez ornitua.

5.- Laburpena

Azken finean, beraz, honexetera bilduko genuke esandakoa.

5.1.- Kalitate Zaintzailearen lanpostua sortzea.

5.2.- Irakasle hori PATetan (Pedagogi Aholkutegietan) edo BIMALEren (Banan-banako Ikastetxe Mailako Alfabetatze-Euskalduntzea, IRALEkoa) barruan kidetzea.

5.3.- Irakasle horrek, zeregin horretarako gai dela garbi frogata edukitzea.

5.4.- Irakasle horren betebeharrak: ikastetxe, eskola, ikastola zein institutu horretako irakasleen ahozko euskara eta idatzizko lanak banan banan zuzentzea. Era berean zentru horretako euskara osoaren kalitate jagole izanik.

Hau honela aintzat ez hartzea, gerta daitekeena da, baina orduan jakin, irakurle, euskara/z irakasten delako ezingo zarela lasai egon.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta